

# Perratxiko-gintza

Irabazi aundia ta janari asko ta ona ematen du.

Edozein lekutan egin diteke ta uzta urte osoan ematen.

Sholto DOUGLAS'ek

ASKOTAN eta egiz, perratxikoa-  
ri belarki-aragia deitu oi

Sopai oneko janaria da ta oso  
gutsa, proteina, bitamina ta  
gizak jan-gaietan.

Uteik edo beste zerbaitekin nas-  
ta jan ditekela, perratxikoakin  
indartsua ta errez dijiritze-  
re egiten da.

Aba ere zoritxarrez, mendian  
erabiltzen diran garaietan bakarrik

bildu ditezkeela, urrea ordainduta  
erosi bearrean arkitzen gera ta  
moko-goxoentzat eta dirudunen-  
tzat jakia dala esan diteke. Egia  
esan, Ipar-Ameriketa'n eta bai  
Europa osoan ere, perratxikogin-  
tza oso goi mallan arkitzen da ta  
urtero asko ta asko saltzen da, bai  
ezetan jateko ta baita gordetzeko  
ere.

Baiña baserri bateko bizibide  
edo lan berezia bezela oso gutxi

Zuzendaritza: Oñatibia'tar Iñaki ta Mendista'tar Koldo.

Idazaritza: Oñatibia'tar Manu.

Argitaldarias: Edili.

Zuzendutza: Cietaria kalea, 21 beca, Donostia. Urrutizkifia: (943) 42 84 59.

Argitak: Fotocomposición Onena, Graficas Lorea.

9.L. 14/1980.



zabaldua dago ta bitartean, erdi goseak dauden lurraldeetarako batik-bat eta bat-batean janaria ugari bear danerako oso ona izan.

Izan ere, etxerako jaki on bat izateko edo saltzeko egiten dala, perratxiko-gintza, baserritarren irabaziak ugaltzeko banen-banekoa izan.

### Ezkutukia

Perratxiko-gintza ain gutxi zabaldua ba'dago, jakinduri berezia, ongarrri banatze ta zaitze apartak bear dirala uste izan dalako da. Perratxiko lan au aspalditik ezkutuki-misterio baten barruan estalita bezela ikusi da ta artaratuko lirakeen asko atzeratu egin dira.

Ala izango zan aspaldi batean, baiña gaur egun arazoa zearo aldatua dago. Egindako azterketeri esker eta baserri ta baratzetan egin diran saioeri esker, perratxiko lana asko erreztu ditekela argi aski ikusi da.

Sortu dan era berria dala-ta, perratxiko geiago ta azkarrago sortzeaz gain, orain arte jokutzen zan eran jarri eziñeko lekuetan jarri diteke.

Zaldi-simaur eta lur bereziak eskatzen zituan eraren orde, lasto, ostro legor, zerrauts, zaya edo arta-iriñakin egindako simaur edo ongarrri pixka batekin jokatu diteke. Gai oiek danak bear ainbat urekin ondo nastu ta ondarrakin

dana estaliaz, uzta on eta azkarrak eskuratu ditezke.

Lurrik bear ez duan simaur edo ongarrri ontan, erein eta andik lau-bost astera uzta jaso oi da.

### Arau errezak

Betetzen oso errezak diran arau batzuek bete ezkeru, era onek ez du batere zailtasunik. Etxerako urte osoan perratxikoak izan nai dituanarentzat eta baita pillo aundiak saltzeko egin nai dituzten barazki-zale ta baserritarrentzat ere, bide egokia degu.

Asteko, naikoa da ganbata, edozein tellatupe edo aterpe. Bear diran muttegiak egiteko ez da gar berezi-berezirik bear. Gañera, eta zarrean ez bezela, uzta jasotzea oso errez egiten da ta leku ttikiak pillo aundiak lortu ditezke.

Azpil edo bandejetan azten ba dira, apaletan bata bestearen gainean jartzea ona da, leku ttikiagoan edukitzeko. Perratxiko leku oiek ttikiak izango dira etxerako bakarrik diranetan eta aundiak salketarako diranetan.

Azpil edo bandejen neurriak auek dira: metro bat luze, 60 zentimetro zabal eta 15 zentimetro sekon eta bakoitzean eta aldiko metro kilotaraño perratxiko jaso diteke.

Azpil oietarako gaiak auek egurra, galbanizatutako burni-oro edo txapa margoztua, amianta, burni-arizko sare gainean politatu



... bustin-erre edo lastinilla, ar-  
... ta busta bustinua bera ere.

### Lasta mota

... edo handejak, era ondan  
... simaur edo ongarriak, ...  
... zentimetro lodian betetzen

... 15 zentimetro luze duen lasta-  
... 130 kilo arta ta lurtean  
... zentimetro, zentimetro edo ondo  
... lur guñean zabaldu;  
... bi egun osotan bera-  
... Bustia dagon lasto orti,  
... nastata dagon naske-  
... botat: 45 kilo ze-  
... 14 kilo zai, sulfato amoni-  
... 4 kilo, beste 4 kilo superfos-  
... kilo ta iru laurden  
... 90 zentimetro  
... 90 zentimetro gora ta 75 zen-  
... zabaltean pillatu ta gaine-  
... botat, azpitik erretien asten  
... uteraino.

... urteko egunerako, pilloa edo  
... bera sartar egongo da.  
... egunetan pillo osoa jira-  
... alhoetatik 30 zentime-  
... kendu ta baztarrean pi-  
... barru aldekoa nantzu, tarti-  
... harranak igas egin dezaten eta  
... pillua egin, alhoetatik ken-  
... barru aldean jarriaz eta  
... aldeetik harruan zegoana.  
... egiten zozzen bezela, kar-  
... kalziko'tik bost bat kilo  
... ta ura geiago bota,

busti gabe ezar gelditzean ez dalar  
benealare asten da berotzen.

Lau egun gerotago, pilloari beste  
jira bat eman eta andik beste iru  
egunera sulfato kalziko edo igel-  
... 5,750 kilo auto zabaldu, be-  
... pillua egin aurretik. Andik  
iru egunera beste jirara bat eta  
urteko egunerako simaur edo on-  
garrira egirik dago.

(Azkeneko orrialdean nortasun  
... danak argiago jarriak ditu-  
zu).



### Erkatasun edo umedade aundia

Pilloa ondo zabaldu ondoren  
eta arreta aundiz, Lindane edo  
onen antzeko xomorro-itzailetik  
200 gramo nastu. Simaur edo on-  
garrira orti, nabar illun kolorekoa  
izango da, usairik gabeta ta eskuar-  
tean estutu ezkeru oso bustia na-  
baritzen dala.

Azpil edo handejetan zabalte-  
rakoan, simaur orti ondo zangatu  
bear da; zertobait busti ta 59-60  
grado berotasuna iritti arte utzi.  
Andik bi egunera, 24 grado bero-  
tasunera jetti arte utzi ta erinketa  
egiteko pronto dago.

15 zentimetrotik 15 zentimetro-  
ra egiten diran 5 zentimetro sako-  
neko taloetan, gutainia neurriko  
perratik gai edo mizelio'ak al-  
datzen dira. Ondoren, azi orti ondo  
irratuta gelditzeko, beartzakin eta  
simaur edo ongarrira berakin ondo  
estututa utzi.





Era ontan jartzen dira apatak.

Azi mikia erabiltzen danean, simaur-ongarri gainean ondo zabaldu.

Perratxiko azia berealaxe zabaltzen asten da azpil osoan dagon simaurrean; urrengo bi asteetan eguncan bitan arin-arin urez ziprztindu-erregadiatu, bertako berotasunari 21 gradotik 24 bitarte eusten zaiola, beñere 18 gradotik jexi gabe.

Andik bi edo iru astera, perratxiko gaia edo mizelioa azpillean dagon simaur danean zabaldua ikusitakoan, 4 bat zentimetro lodian ondar garbiakin estali. Berotasuna 14-18 gradora jexten da ta

bera da otz-bero gironik onen uzta aundia emateko.

Beaz duan ezkotasunari rusteko, eguncan bitan zerbaiz urez ziprztindu ta andik bi edo bi urez t'erdira uzta agertzen asiko da ta bi illabeteetan ematen ariko.

### Ez dira moztu bear

Perratxikoak biltzerak onen erlebanaz moztu, rustarretik heatzekin biurrituaz bainik.

Simaurretan gelditzen dituz txokon-uneak berealaxe simaur beraz estali.

Azpillak ezkotasun aundian zaitu bear dira, nize bolarrak



gabe, baiña ondo aize-berrituaz.  
Gaitzik edo gaxoaldirik ez sortze-  
ko, beti garbi eduki.

Urte osoan perratxikoak eduki  
ditezke aterpean eta otz-beroa ai-  
ze-berritzeakin zaituaz, baiña  
aterperik gabe ere perratxikogin-  
tza egin ditezke, eguzkiak zuzenean  
azpillarik jotzen ez duala.

Ereintza tarteka ta segidan egi-  
ten dala, urte osoan uzta eduki  
ezinik ez dago.

Lurrik gabeko perratxikogintza  
eta au laterri askotan aztertu da.  
Inglatera'ko «Perratxiko-zaleen  
Elkartasunak» lan asko egin du  
langintza au zabaltzen. Asia'raino  
zabaldu da era berri au ta baztar  
guztietan lanean asiak ditugu.

### Ez du azukre bearrik

Zaldi-simaurrik gabe ta era zai-  
rik gabeko lenengo saioak Ingla-  
terra'ko Reading Ikastetxe Nagu-  
san 1949'gn. urtean egin ziran.  
Landare aundiak ez bezela, bizi-  
gabeko gaiekin bakarrik perratxi-  
koak bizitzerik etzuala ta azukre-  
ta bearrezkoa zuala uste zan  
era artan, baiña ikusi danez, ze-  
trautsa ta olo-iriña nasketak lana  
ondo egiten du ta azukrearen bea-  
rik ez du.

Inglatera'n, Ipar-Ameriketa'n  
ta India'n egindako saio ta azter-  
terri esker sortu da era errez au.  
Tokian tokiko gaiak erabilli ditez-  
ke lurrik gabeko simaur au sor-  
tzen, lasto ordez belar-ondo ta os-

tro-legorrak, zai ordez artairiña ta  
zerrauts ordez arta-lokotx txetuak  
erabilliaz eta edozein leku ta giro-  
tan etekin oneko langintza jarri di-  
teke, norberarentzat egokienco  
erara aldatuaz. Nekazariak asko-  
tan erre edo zakarretara bota oi  
dituzten gaiak, perratxikotarako  
onak lirake.

Perratxiko uzta ona atera ditezke  
leku ttikian. Jaki bezela dijiri erre-  
za da ta dituan proteina ta bitami-  
na B onak izan biotzeko miñez  
daudenentzat eta beri-beri gaitza-  
ren aurkako. Bitamina C ta D be-  
rekin ditu ta baita niazina, kare,  
fosforo, potasio, burni ta kobrea  
edo burni-oria.

### Gaitzen aurkakoa

Perratxikoak sarri jaten dirala,  
larru-azaleko gaitz askoren aurka-  
koa gerta oi da. Ezurrak indartze-  
ko ta ikusmena ontzeko ere ona  
da. Azido foliko asko dualako,  
odol-auleriaren sendagai ona da.  
Almidonik ez dualako goxo-eri  
edo diabetes dutenentzat eta baita  
gizenegi diranentzat ere janari ona  
da.

Osasunari ta ematen duan ete-  
kin onari begira, bai etxerako ta  
bai salketarako ere askorentzat bi-  
zibide ona gerta ditezke. Etxeko ja-  
naritzea obeagotzeko ta irabazbi-  
deak ugaritzeko, bikaña perratxi-  
kogintza. Era berri au edozeñek  
edozein lekutan egin dezakena da.



**Simaurrea edo ungareia nola antolatua**

GAIAK	KILOAK
Lastoa	136
Zerrautsa	45
Zaita	13,6
Sulfato amoniko	4
Superfosfato de kalzio	4
Urea	1,8
Karbonato kalziko	4,5
Sulfato kalziko (igeltsua)	5,7
Ura: beru aintzat	

Neurti aurretan geiago edo gutxiago, zai aintzat egin ditekete. Gai buzurak aldaturik ditekete: lasto ondez, belar-ondo ta ostro legorrak; zerrautsa ondez, lokotxautsa edo arros-azala eta zai ondez, artairiña edo oleririña. Beste antzeko edozer ere erabilili ditekete.

EGUNA	LANKETA
1	Lastoa busti.
3	Zerrautsa, zaita, sulfato amoniko, superfosfato ta urea ondo nastu, lasto gaindera bota, ondo nastu ta pillatu.
6	Lenengo jira eman karbonato

kalziko autsa nastuaz eta ur merdeska botear.

- 10 Bigarren jira.
- 13 Irugarren jira ta igeltsua nastu.
- 16 Laugarren jira.
- 19 Bostgarren jira.
- 20 Pillua desegin, xomorro iltrailleu zabaldu. Simaurrea antolatua dago.

**Perratxiko gordiñaren jaki-ondara**

100 gramo jakik gai auek dau. Zazpi bero-indar edo kaloria, 91,5 ura; 1,8 proteina; koppe izpi bat; karbidratorik beterere ez.

**MINERALAK** (miligramo ka); Kalzio 2,9; fosforo 3, burni 1; sodio 9,1; potasio 467.

**BITAMINAK:** A ezertan U.I.; B1 0,44; azido nikotiko 0,44; C3.

**OTARRIK** ezkerrean